

B

BARREN

TOKIKOM

Trinitateetako soinu banda





SUMMER

Uda



Kensington Elgoibar
C/ San Ignacio 4
Telf. 943 74 02 36
idiomas@kensington-sles

IKASFUN

Data 2011-07-01etik 2011-07-29ra

- ▶ Egunak: astelehenetik ostiralera
- ▶ Hizkuntza: ingelesa
- ▶ Adina: 1999-2005
- ▶ Ekintzak: hiru orduko aisialdia ingelesez, jokoak, irteerak, kirolak, multimediarekin jarduerak...
- ▶ Talde murriztuak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 2 ordu: 200 €
 - Egunean 3 ordu: 250 €
 - Egunean 4 ordu: 300 €



IKASTARO TRINKOAK

Data 2011-07-01etik 2011-07-30era

- ▶ Egunak: astelehenetik ostiralera
- ▶ Hizkuntza: ingelesa
- ▶ Talde murriztuak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 1 ordu: 200 €
 - Egunean 2 ordu: 350 €
 - Egunean 3 ordu: 475 €

Data 2011-07-01etik 2011-07-15era

- ▶ Gazteak
- ▶ Goi mailako moduloak
- ▶ Prezioa:
 - Egunean 1 ordu: 120 €
 - Egunean 2 ordu: 240 €
 - Egunean 3 ordu: 360 €

UDAKO IKASTAROKAK

- Egunean 2 eta 3 ordu
- Mailak
- Asteakako izenemateak
- Kurtso modularrak 1-2-1
- Gutxienez 10 ordu
- Matrikula ordaindu beharrik gabe

jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobee!

SAN PEDRO

J A T E T X E A

SAN PEDRO AUZOA

Tel. 943 740 010

ELGOIBAR





Amaia Larrañaga

Jose Luis, ziur na-
go ondorengo le-
rrootan adierazi-
takoak oso etxe-
ko egingo zaizki-
zula.

Maiatzak 9, 10,
11, 12 eta 13: azterke-
ta aurreko astea. Euskal-
tegieta ez zen giro! Bata zi-
ttalduta, *dizut/zaitut* bikotetik bata
aukeratzeak ematen zion amorrazioa-
gatik; bestea, ganoraz lorik egin ezinda, 300 hi-

tzeko idazlana taxuz ezin zuelako egin; hirugarrena, denekin hase-
re, irakurmenean, testuan kokatu beharreko pasarte desordenatueta,
behin eta berriz, egindako hutsak zirela-eta; laugarrena...

“Zeinek ematen digu poz handiagoa: titulua helburu dutenek ala besteek?”

Maiatzak 14: euskaltegieta lehen, bigarren eta hirugarren mailak
egiaztatze azterketak. Ez zen giro, ez etxean, ez aztertokia! Batari
kontzentrazioak ihes egin; besteari tipexa ahaztu; hirugarrenari txiza la-
rriak heldu; laugarrenari...

Ekainak 3: azterketetan izandako emaitzen berri jakiteko eguna . “Ez
gai”-en inguruan ez zen giro! Bata negarrez; bestea maldizioka; hiru-
garrena erreklamazio eske; laugarrena...

Lerro hauek argitaratzen direnerako, aurrekoak gainditu dituztenek,
ahozko zereginak ere eginda edo egitear izango dituzte, eta geuk ere ur-
te osoko eskolak amaitzeaz izango ditugunez, nahiz eta udakoak ate jo-
ka izan, aurreko “giro txarrak” alde batera laga, eta eguzkiari begira jarri-
ko gara. Izan ere, euren sufrimenduak eta pozak geuk ere bizi izaten di-
tugu. Baina, euskaltegieta bada bestelako helbururik duenik ere, ezta?
batak umeari lagundu nahi diola, besteak lagunei ulertu nahi diela, hiru-
garrenak inguruan dituenekin harremanak gozatu nahi dituela, laugarre-
nak... Eta, zeinek ematen digu poz handiagoa: titulua helburu dutenek
ala azken hauek?



Jose Luis Azpillaga

Zuk deskribatutako giro hori etxe-
ko egiten zait, bai. Gurean ere izan dira, pozaldiekin bate-
ra, urduritasunak, amorrualdiak eta abarrak. Gai-
nera, zuk diozun moduan, ikasleen pozak eta su-
frimenduak geuk ere bizi izaten ditugunez, giro
gazi-gozo horretan murgilduta gaude euskalte-
gieta. Baina, hein batean, normala da: azterketek
berekin dute hori guztia, ezta?

Titulua helburu dutenek ala bestelako xederen bat
dutenek ematen diguten poz handiagoa galdetzen didazu.

Eta ez dakit zer erantzun. Umeari laguntzeko ikastea, ingurukoekin
harremanak gozatzeko edota gure herrian hobeto integratzeko ikas-
tea helburu ederrak dira: poza ematen digute irakasleoi horrelako
ikasleek. Hala ere, titulua helburu dutenak ere badira poz-iturri eder
askoa zenbaitetan. Joan den asteko ostiralean eta larunbatean lehen
mailako ahozko azterketak egiten jardun dugu Donostian. Epaimahai-
ko bi irakasleok hogeita hamabi azterketari, binaka jarrita, izan ditugu
solaskide hamabost bat minutuz.

“Denek ematen didate poza, gure herrian euskaraz bizi ahal izatea errazten digutelako”

Azterketaren hasierako *Nondik zatoz? Nongoa zara?...* galderak
egin, eta hara hor erantzunak: batak, Madrillgoa dela, Legazpira ez-
kondu eta Zumarragako anbulatorioan ari dela lanean... euskaraz txu-
kun; besteak, Kataluniakoa dela, hemengo mutila ezagutu, Donostia-
ra etorri, eta Hendaian ari dela lanean... euskaraz polito, Iparraldeko
azentu eta guzti! Gasteiztar irakasleak, barnetegian bederatzi hilabete
eman dituela... euskaraz bikain... Bat edo beste ezinean ibili da, bai;
baina ahalegina ere eskertzekoa da. Denek eman didate poza, gure
herrian euskaraz bizi ahal izatea errazten digutelako. Horregatik, mila
esker guztioi eta segi goiari eusten!



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



ARE ARE KI



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Sallobenteko kanparen erabilera

Azken asteburuan zeharo harrিতa utzi nauen gertakari baten lekuko izan naiz. Sallobente auzoan egurrezko mahaiak dituen kanpa dago, eta gero eta begirune gutxiagorekin zaintzen du jendeak. Erabiltzaileek uzten duten zikinkeria gutxi balitz, orain kanpa barrura autoak sartzeko burutazio alaia izan dute.

Lehen, autoak kanparen ate aurrean aparkatzen zituzten, (ehun metrora aparkalekua dagoen arren) gainerako guztiekiko errespetu eza agerian utziz. Badirudi ez zaiela ezer axola. Gainera, zerbait esanez gero, beraien eskubideez hitz eginez gogaitzen dute bat. Ez da nahikoa kanpara jatekoarekin joatea. Musika, jostailuak eta beste guztia eskura izan nahi ditugu, ondorioetan pentsatu gabe.

Ez dakit udaletxearen jarrera eta atsedengune hauetarako daukan politika zein den, baina jarrera horien kontrako neurriak hartzea ez litzateke gaizki egongo. Uda iritsi zaigu, eta atsedengune horien erabilerak gora egiten du sasoi honetan, logikoa den bezala. Nire proposamena Udalari zuzentzen diot: arazo hau handitu baino lehen, garbi utzi behar luke gune hauek ez direla bakoitzak nahi duena egiteko guneak, inguruko guztiak errespetatuz, denok gozatzeko baizik. Benetan eskertzekoa izango litzateke horrelako guneen erabilerarako arategi bat jarriko balu, eta bereziki, kanpa hondatzen duten ibilgailuei sarrera debekatuko baliote. Aipatutako erabiltzaileei, berriz, argi dago ezin zaiela ezertxo ere esan. Egiten dutenaz eta dituzten inplikazio guztiez beraien kabuz konturatu ez badira, azalpen batek ezer gutxirako balioko luke.

H.A.A. ☺

Eskerrik asko

Elgoibar Ikastolako LH6. mailako ikasleok gure andereño eta maisuak eskertu nahi ditugu. Mila esker Itziar, Iñaki, Jon, Nuria, Oihane, Regina, Maria, Kontxi eta Bidatz, denbora honetan gurekin izandako pazientzia eta arretagatik.

Muxu bat, eta laster arte!

Elgoibar Ikastolako LH6 mailako ikasleak ☺


ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharoko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeak zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Aste honetan sartu gara udan.

Mintxetako igerilekuak ala hondartza nahiago dituzu?



Ibai Oiarzabal
20 urte, ikaslea

Igerilekuak nahiago ditut. Hondartzara joatea nekezagoa da: trenez ibiltzea ez zait gustatzen, eta autoz joatea gero eta zailagoa da, aparkatzeko lekurik ez delako egoten, eta gainera ordaindu egin behar izaten da. Mintxetara joatea erosoa goa da.



Imanol Carcedo
35 urte, langabetua

Igerilekuak. Bi ume dauzkat, eta umeekin hondartzara joatea ez da erraza. Umeak hondarrez zikintzen dira, eta gero garbitzeko lan handiagoa izaten da. Umerik izango ez banu, hondartzara ere gustura joango nintzateke, baina igerilekue-tan oso ondo moldatzen gara.



Itziar Aramaio
32 urte, irakaslea

Ez bata eta ez bestea. Jende gutxi egongo balitz, biak izango lirarteke egokiak, baina udan jendez gainezka egoten direnez, ez zaizkit gustatzen. Gehiago joaten naiz mendira. Hondartzara joatekotan, goizean goiz joaten naiz, inor egoten ez denean.



Tamara Molina
15 urte, ikaslea

Hondartza. Mintxetan beti jende berbera egoten da, denak Elgoibarkoak, eta hondartzan jende berria ikusten duzu. Gainera handiagoa da, eta aukera gehiago ematen du. Igerilekua beti berdina da. Trenez joaten gara hondartzara, eta trenean ere lagunak egin daitezke.

SEMAFOROIA




Osasun Zentrotik San Rokera doan igogailua hondatuta dago: "Astebete baino gehiago darama igogailu berriak hondatuta. Igartzen da hauteskundeak pasatu direla".

San Rokeko auzokideak ez daude konforme Udalak baimendu duen obra berriarekin: "Orain arte San Roke auzoa lasaia izan da, baina Santa Ana kaletik San Rokera egingo duten bidearekin ez da horrela izango. Entzun dugunaren arabera, bi norantzakoa izango da bidea, eta zarata, trafikoa eta arriskua ekarriko ditu. Gure ustez, auzokideei galdetu egin beharko litzaieke horrelako obra handi bat egin aurretik, zein onura ekarriko dituen. Hogei segundo irabaztea?. Ez dugu obra horren arrazoia ulertzen".



Txalo bero bat Ana Ansola piano irakasleari: "Eskerrik asko, Ana, urtero egiten duzun lanagatik, eta zure adiskidetasunagatik. Ikasle nagusien taldekoek bihotz bihotzez eskertzen dizugu gurekin egiten duzun lana".

Txalo bero bat, Trinitate jaien antolatzaile eta parte hartzaile guztiei: "Herriko jairik parte hartzaileenak izanik ikaragarria izan da jendearen erantzuna, eta antolaketa ere bikaina. Zorionak, eta animo datorren urtekoak antolatzen hasteko".



Zuen kezak, galdurak edo txaloak bidaltzeko:
barran@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

MARTXAN DA ASTO-KAKA

BARRENZALEZ inguraturik aurkeztu zuen Elgoibarko Izarrak Asto-kaka jokoia joan zen barixakuan. Taupada antzerki taldeak antzeztu zuen Asto-kaka jokoia, eta horri esker ezagutu genituen jokoaren arauak, sariak eta nondik norako guztiak. Horren ostean, Mikel Olaizolak jokoari egin dion abestia kantatu genuen, Elgoibarko Kale Kantarien laguntzaz.

Asto-kaka jokoarekin BARRENEN aurtengo defizitari aurre egiteko, 12.000 euro inguruko diru-etekinak lortu nahi ditugu. Horretarako 5.000 txartel saldu behar ditugu, 3 euroan bakoitza. Txartelak erosteko hainbat modu edo bide izango da, eta *BARRENZALE* guztiak animatu nahi zaituztegu jokoan parte hartzera. Zenbat eta txartel gehiago erosi, saria eskuratzeke aukera gehiago izango duzue!

Aurkezpeneko erretratuak eta bideoa ikusteko:
www.elgoibarren.net



TXARTELAK SALGAI DAUDE

Asto-kakaren txartelak erosteko hainbat modu daude:

- Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean eta BARRENeko erredakzian.
- Telefonoz, 943 741 626 zenbakira deituta.
- Webgunean: www.elgoibarkoizarra.com/astokaka helbidean sartu eta han aurkituko duzuen formularioa beteta.
- Elgoibarko okindegietan: Arkupe, Doña Mercedes, Eizagirre, Foterro, Gloria, Ibarrenea, Muruamendiaraz, Bolintxo.

KALE SALMENTA

Txartelak saltzeko mahaiak jarriko ditugu datozen egunetan.

- Ekainak 24, barixakua: Plaza Handian, arratsaldez.
- Ekainak 30, eguena: Nafarroa Plazan, arratsaldez.

BI EGUNEKO ECITARAUA

Ekitaldi nagusia **urriaren 15ean** izango bada ere, urriaren 14an hasiko dira Asto-kakari lotutako jarduerak. Elgoibarko Izarrak bi eguneko programazioa prestatuko du, baina horren berri aurrerago emango dizuegu.



LAGUNDUKO AL DIGUZU ASTO-KAKAREN TXARTELAK SALTZEN?

Txartelak saltzeko prest baldin bazaude,
deitu Elgoibarko Izarrara: 943 741 626

<http://elgoibarkoizarra.com/astokaka>

Maiatzean...

JAIOTAKOAK




Mara Martin Ortega
Maiatzak 2
Gregorio eta Rosa Maria



Ion Zendoia Ovejero
Maiatzak 3
Asier eta Ane



Nora Leonardo Oñederra
Maiatzak 13
Iker eta Amaia



Jare Rodriguez Etxabe
Borja eta Amaia
Maiatzak 25




Xabat Galarraga
Gurrutxaga Jon eta Itziar
Maiatzak 18



Mikel Martin San Martin
Juan Carlos eta Ane
Maiatzak 30



Lucia Gonzalez Juarez
Maiatzak 28
Aitor eta Vero



Irati OIartzabal
Ugarteburu Maiatzak 20
Eñaut eta Leire



Kevin Juang
Maiatzak 17
Xiangxing eta Zhenqui

Ines Diez Vazquez
Maiatzak 6
Juan eta Lorea

Christian Mendoza
Altamirano Maiatzak 6
Darwin eta Carmen

Mikel Conde Bermejo
Maiatzak 25
Igor eta Beatriz

Uviu Licaciu
Maiatzak 3
Martin eta Victoria

Oier Esnaola Uribe
Maiatzak 6
Xabier eta Maite

Uxue Nuñez Monedero
Maiatzak 7
Jose Mari eta Begoña

Nara Roman Varona
Maiatzak 7
Roberto eta Lorea

Brayan Lharrak
Maiatzak 8
Karim eta Imane

June Marcilla Merino
Maiatzak 10
Mikel eta Nekane

Youseef Elmataoiu
Maiatzak 19
El Bekkay eta Hananev

Eneko Amaiz Garcia
Maiatzak 23
Juan eta Ana Isabel

Jone Castañares
Fernandez Maiatzak 23
Josu eta Inmaculada

EZKONDUTAKOAK

• **Juan Puertas Azkarate** eta **Idoia Santos Urain** Maiatzak 20

HILDAKOAK

María Urresti San Martín • 86 urte • Maiatzak 1
Salvador Zelaia Ibarluzea • 80 urte • Maiatzak 2
Cruz Gasteain Rodríguez • 58 urte • Maiatzak 8
Josefa Prol Cristobo • 74 urte • Maiatzak 9
Genoveva Arrieta Azpiazu • 89 urte • Maiatzak 13
Sabino Arriola Ansoategi • 77 urte • Maiatzak 15
Maria Luisa Mendikute Zangitu • 74 urte • Maiatzak 17
Roman Bernedo Galdos • 95 urte • Maiatzak 23
Jose Luis Elustondo Gorriti • 82 urte • Maiatzak 25
Begoña Muguruza Zendoia • 77 urte • Maiatzak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua

BARRENEko erredakziora edo

barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali.

Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

Eguenean eta barixakuan egingo dute hirugarren pintxo lehiaketa

Hamabost tabernarik hartuko dute parte, eta pintxoak 1,10 euro balioko ditu

Datorren egunean eta barixakuan egingo dute hirugarren pintxo lehiaketa. Eguenean 19:00etatik 22:00etara egongo da pintxoak dastatzeko aukera, eta barixakuan 11:30etik aurrera. Aurtengo edizioan hamabost tabernarik hartuko dute parte, iaz baino hiru gehiagok: Txarriduna, Urkiola, Gabi, King-Kong, El Gautxo, Gorbea, Xagua, Iturri, Salento, Ametsa, Lanbroa, Pilon, Mahats, Viento sur eta Lojantzi. Pintxoaren prezioa, bestalde, 1,10 eurokoa izango da.

Bi sari banatuko dituzte: bata epaimahaiak emango du, eta, bestea, herritarrek aukeratu dute. Botoa ematen duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zozketatuko dute.



Udaltzainek bi lagun atxilotu zituzten joan zen asteburuan



Udaltzainek bilaketa agindu bat zuen gizonetzko bat atzeman zuten San Frantzisko kalean joan zen barixakuan, eta Ertzaintzaren arduran laga zuten. Jabier Oñederra udaltzainburuak adierazitakoaren arabera, dendari baten deiarri kaso eginez hiru 'susmagari' identifikatzera joan zirenean egin zuten topo, atxilotzeko agindua zuen gizonarekin. Bestalde, zapatu gauean, nagusien danborrada Bernardo Ezenarro kaletik pasatzen ari zen unean, San Frantzisko kalera borroka bat geldiaraztera joan ziren udaltzainetako bat zauritu zuen lagun batek. Ertzaintzako agenteak bertaratu eta atxilotu egin zuten.

IMHko ikasleak eta ikasle ohiak saritu zituzten atzo

IMH sariak banatu zituzten atzo, eta ekitaldian, ikastetxeko ikasleak eta ikasle ohiak saritu zituzten. Aurtengo gaia balioaniztasuna eta nazioartekotzea izan da. 2011ko ikasle aipagarrienaren saria Izaskun Unanue zarauztarrak jaso zuen; fabrikazio alorreko ikasle aipagarria, bestalde, Larraitz Uranga azkoitiarra izan zen, eta Elgoibarko ikasle aipagarrienaren saria Mikel Zubiaurreri eman zioten. Horrez gain, ikasle ohi aipagarrienaren saria Eleazar Raya ermuarrak jaso zuen, S. Coop. Soraluze enpresako zuzendari komertzialak. Ekitaldian egitasmoaren enpresa babesleak (Danobat Group, Etxe-Tar, Mapfre, Metal Performers, Sariki) eta kolaboratzaileen (Elgoibarko Udala, Hezkuntza Saila eta AFM) ordezkariak ere hartu zuten parte.



Izena **Arnaldo Otegi**



Otegiaren aldeko bandoa irakurri zuten.

Astelehenean epaituko dute Arnaldo Otegi Bateragune auzian, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Arnaldo askatu, politika askatu plataformak, Otegi babesa erakusteko. Herriko talde eta eragileek egun osoko kontzentrazioa egingo dute Plaza Handian, eta 19:00etan manifestazioa hasiko da. Era berean, Arnaldo Otegi aske uzteko eskatuz bandoa irakurri zuten joan zen zapatuan, alguazil, pregonero eta danbolinero jantzitako hiru herritarrek. 2009ko urriaren 13an atxilotu zuten Otegi, beste hainbat lagunekin batera, Batasunaren Mahai Nazionala berriro osatu nahi zutela eta ETArek esanetara ari zirela egotzita.

Zenbakia **63.181**

Primitibaren zozketak 63.181 euroko saria utzi zuen joan zen astean Elgoibarren. Irabazleak bost zenbaki eta osagarria asmatu zituen, baina ez zen izan bigarren mailako asmatzaile bakarra, Guadalajaran, Badajozen, Moncadan, Avilesen eta Marbellan ere izan zirelako irabazleak. Sari nagusia banatu gabe geratu zen, inork ez zituelako sei zenbakiak asmatu.

Irudia **Eguzki autoa**

IMHko heziketa zikloetako irakasleek eguzki energiaren funtzionatzen duten autoa egin dute, eta joan zen astean atera zuten estreinakoz tailerretik. Eguzkiak gogor jotzen zuela aprobetxatuz, Mintxetako pistan probatu zuten autoa, eta, bateriak ondo irauteaz gain, etengabe kargatzen zela egiaztatu zuten. Lehenengo proba, beraz, ondo irten zen, eta aurrerantzean proba gehiago egingo dituzte. IMHko kideek 2011ko udazkenean Murtziako Solar Race proban parte hartu nahi dute.



Azken zapatuko feria, bihar

Bihar, ekainak 25, hileko azken zapatuko feria egongo da. Nafarroa Plazan baserriko produktuak jarriko dituzte salgai, eta Plaza Txikian ganadu erakusketa egingo dute. Eguerditik aurrera, haragi gisatu pintxoak banatuko ditu CD Elgoibarrek. Horrez gain, 12:00etan kale kantarien saioa hasiko da.

‘Pronostiko erreserbatua’ kale antzerkia, martitzenean

Martitzenean, ekainak 28, gay, lesbiana, bisexual eta transexualen nazioarteko eguna dela-eta, *Pronostiko erreserbatua* kale antzerkia egingo du Oihulari Klowen taldeak. Udaleko Gazte Informazio Zerbitzuak eta Berdintasun Sailak antolatu dute ekitaldia, gay eta lesbianen eskubideen urraketa salatzeke; emakume eta gizon guztiek sexualitatea askatasunez eta aukera berdintasunez bizitzeko eskubidea dutela aintzat hartzeke, eta, aldi berean, herritarrak egoera honen inguruan sentsibilizatzeko. 20:00etan hasiko da antzerkia, Plaza Handian.

Salbean abesteko deia

San Bartolome bezperako salbean abesteko interesatuek uztailaren 20an eta 27an izango dituzte entseguak, 20:00etan parrokiari.

Arantzazura erromesaldia, domekan

Arantzazura erromesaldia antolatu dute domekarako, ekainak 26. Autobusa 9:30ean irtengo da Txankakuako geltokitik, eta arratsaldean itzuliko da Elgoibarrera. Irteeraren prezioa 35 eurokoa da. Interesatuek Muruamendiaraz gozotegian eman dezakete izena.

BH Institutuko diploma banaketa, gaur

Elgoibar BH Institutuko diplomak banatuko dituzte gaur, Herriko Antzokian. Bestalde, 73 ikaslelik guztiek gainditu dute unibertsitate-rako hautapropa.

Erretratu zaharra



1973

Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Garridok ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1973. urteko erretratua da, eta Zumaian aterata dago, hango festetan. Erretratuan azaltzen diren mutikoak Jesus Martinez eta Mikel Parada dira. Txikitatik oso lagunak ziren biak, gurasoak ere lagunak zirelako, eta irteerak elkarrekin egiteko ohitura handia zeukaten. Egun horretan Zumaiara joan ziren, eta festarik festa ibiltzen zen argazkilari baten dekorazio panel aurrean atera zuten argazkia.



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEn argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu,
eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhoa)

B
BARREN



trinitateak

Trinitateak, begiratu batean

Trinitate jaietako soinu banda izan diren danbor hotsek hurrengo urtera arte agur esan digute. Nagusien eta umeen danborradez gain, baina, denarik izan da Trinitate jaietan, Elgoibarren zein Mendaron, bi herriek ospatu dituzte-eta jaiak joan den asteburuan. Zapatuan Trinitateetako X. Azoka berezia egin zen Elgoibarren, eta bertako baserrietan hazitako abere erakusketarekin batera, baserrietako produktuak erosi eta dastatzeko aukera izan zen. Aurtengo berrikuntza herri kirolak eta artile mozketa erakustaldia izan ziren. Lehenengoan punta puntako kirolariak parte hartu zuten eta ikuslez beteta egon zen Plaza Handia. Artile mozketa erakustaldian, berriz, ordu-erdian doi-doi moztu zien ilea Mikel Etxeberriak dozena bat inguru ardiri. Gauean, danbor hotsak nagusitu ziren. Nagusien danborradako gaia industria izan da aurtan eta karrozak herriko langileei eskainita zeuden. Batean bi olagizon ikus zitezkeen lanean eta bestean Sigma josteko makinak zerabiltzaten bi jostun. Artisau azoka izan zen domekan, eta umeen danborradako karrozak Elgoibarko jaiak irudikatu zituen, zaldiko-maldiko eta guzti.

Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Eguraldi eguzkitsua lagun, 300 ume inguruk parte hartu zuten umeen danborradan.



Bitoriano Loiola "Ospas" eta Sabin Longarte trikitilariak girotu zituzten Mendaroko Trinitate jaiak.



Generala eta emaztea, dotore eta apain danborradari ekiteko prest.




Antxon Fresnedo artisau elgoibartarra ume bati itsas korapiloen inguruko azalpenak emanez.



Emi Nogalesek margolanak erakutsi zituen artisau azokan.



Artile mozketa erakusketa: Mikel Etxeberriak bi minutu aski zituen ardi bakoitzari ilea mozteko.



Txikienek ederki pasatzen dute danborradan.



Sukaldar...



Azokako izarrak: Basurdea eta honen kumeak ikusteko sarrera kobratuz gero, jabea aberastu.



Bakoitza bere postuan eta serio hasten dute danborrada nagusiek.



Sukaldariak lerrokatuta Plaza Handian.



Industriako langileak omendu ditu aurtengo danborradak. Goiko irudian gai honen inguruan prestatu zuten karroza.



Behiek badakite posatzen.



Gastadoreek dantza saio ikusgarria eskaini zuten, urtero legez, Madalako parkean.



Flor...
Me...



adi, zuzendariaren aginduak betetzeko prest.



Lau soldadu atsedean hartzen.



Umeen danborradan karrozan joan ziren umeak ez ziren konfetiak jaurtitzear aspertu.





Jende asko hurbildu zen Leku-Eder plazara artisauen lana gertutik ezagutzera.



Nazabal, Donato Larretxea, Jesus Mari Mujika, Jesus Zelai II, Julen eta eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak herri kirol erakustaldian.



Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleen jaialdiko une bat.



Lokotx batzen eta korrika jardun zuten Gotzon Zulaikak eta Jon Larrañagak Mendaron.



la 300 lagunek parte hartu zuten Atabal elkarteak antolatzen duen nagusien danborradan.



Goenatxok airean ibili zuen 200 kiloko harria.



Noelia Suarez (ezkerrean) eta Mendaroko alkate berria, Sonia Garcia, trontzan.



Idoia Etxeberriak indar erakustaldia eskaini zuen ingudearekin, herri kirolen jaialdian.



Iñigo Legorbururen aginduak jarraitu zituzten soldaduek.



Euskal dantza erakustaldia.



JUANMA LOPEZ

Alkorta eskubaloi taldeko entrenatzailea

Asobal ligan hamar urtez jokatu eta gero, Arrate taldean amaitu zuen ibilbide profesionala Juanma Lopez madrildarrak. Eibarren, entrenatzaile ibilbidea hasi zuen. Ohorezko Mailako Arrate taldea lau urtez entrenatu ostean, duela hiru urte hartu zuen Sanloko senior mutilen taldea entrenatzeko ardura. Aurten Bigarren Nazional mailara igotzea lortu dute, emozioz beteriko denboraldi amaiera bizi eta gero.

“Jokalari elgoibartarrak fitxatuz talde sendoa osa dezakegu”

Zenbat denbora daramazu Alkorta taldea entrenatzen?

Duela bost urte Lehen Nazional mailara igotzea lortu zuen senior mutilen Sanloko taldeak, baina maila berrian debuta egin aurretik desagertu egin zen. Handik bi urtera ailegatu nintzen ni klubera eta proiektu berriari hutsetik ekin genion.

Has gaitezen amaieratik. Denboraldiko azken segundoetan lortu zenuten mailaz igotzea. Nola bizi zenuen Trapagarango azken minutu zirrargarri hura?

Lasai nengoen. Konfiantza osoa daukat jokariengan, eta, gainera, haiek baretzea zen nire ardura, gazteak izanik ez daude-eta tentsio handiko uneak bizitzera ohituta. Hollywoodeko film baten gidoirako egokia zirudien amaiera izan zen. Partida bukatzeko 40 segundoren faltan hartu ziguten aurrea estreinako. Hutsartea eskatu eta bi hilabetez prestatzen jardun genuen jokaldia egiteko unea zela esan nien mutilei. Ezinbestekoa zen ausart jokatzeko eta halaxe egin zuten. Golik sartu ez genuen arren, gure aldeko penaltia adierazi zuen epaileak. Andonirentzat (Andoni Armendia) munduko penaltirik luzeena izango zela imajinatzen dut (barrez). Gola sartu zuen eta igotzea lortu genuen. Pozak txoratzen amaitu genuen.

Zaleen babesik ez zaizue falta izan.

Partida asko eta era guztietakoak bizitzea egokitu zait nire kirol bizitzan, baina Trapagaranen, berez zegoena baino gehiago geneukala jokoan zirudien. Harritura laga ninduen. Elgoibartik 200 bat lagun joan zirela uste dut, eta eurek ere igotzea jokoan zutenez, 500 zale inguru batu zituzten harmailetan. Tentsioa nabari zitekeen.

Denboraldi hasierako helburuen artean zegoen igotzea lortzea?

lazko denboraldia erreferentzia moduan hartuz gero, ez, talde osoa edukirik arren ez genuen-eta igotzea lortu, Igoera Fasea jokatu genuen arren. Aurten, lesioen eta lan konpromisoen ondorioz, 11

jokalarirekin bakarrik egin diogu aurre denboraldiko azken txanpari, baina sekulako Igoera Fasea jokatu dugu. Esperientzia pilatu eta Igoera Faseaz gozatzea zen gure helburua; baina, nola diren gauzak, Liga erregularrean partida guztiak irabazi zizkiguten Egiako eta Zarautzeko taldeei, igotzeko bi faborito argiei, irabazteak konfiantza handia eman zigun eta lehen postuan amaitu genuen lehen itzulia, hamar puntutik zazpi eskuratuta. Urduritasuna ailegatu zen gero; saria gertu ikustean kosta egiten da errematatzea. Estu eta larri baina egindako lana borobiltzen jakin dugu. Ustekabeko igotzea izan da, baina, era berean, merezitakoa. Jokalariak erakutsi duten konpromisoan dago taldearen indarra. Laz, tentsio handiko partidetan beti galtzen genuen gol bateko aldeaz. Heldutasun handiagorekin jokatu ditugu aurten partida estuak eta garaipen gehiago eskuratu ditugu. lazkoa, nolabait, aurtengorako irakaspena izan da.

Bigarren Nazional mailan arituko zarete datorren denboraldian. Zer aurkituko duzue?

Ondo ezagutzen dudan maila da. Futboleko Hirugarren Mailan aritzea halakoa da, konparazio bat egitearren. Lehen Nazional Maila, Ohorezko B Maila eta Asobal Liga bakarrik daude gorago. Nire ustez Lehen Nazional Mailan egotea dagokio Elgoibarri, aurrekontuz eta jokalarien kalitateagatik. Orain daukagun taldea oinarri hartu eta inguruko herrietako taldeetan jokatzeko ari diren laupabost kalitatezko jokalaririk elgoibartar fitxatuta, Igoera Fasea jokatzeko aukerak izan ditzakegula uste dut. Ari gara batzuekin berbetan: Zumaiako Pulpon jokatzeko duten bi jokalarirekin eta Arraten dagoen Gorka Garaterekin. Aurrekontuari dagokionez, Lehen Nazional mailan jokatzeko 40.000 euroko aurrekontua behar da. Aldiz, Ohorezko B mailan ari diren taldeek 150.000-200.000 euroko aurrekontuak dituzte.

Iñigo Larizek zortzigarren egin du Txindokiko Kilometro bertikalean, eta Maite Maiora hirugarrena izan da nesketan

138 lagunek amaitu zuten mendi lasterketa, eta horietatik 11, neskak izan ziren

Txindokiko kilometro bertikala jokatu zuten joan zen domekan, eta partaideen artean Iñigo Lariz elgoibartarra eta Maite Maiora mendararra izan ziren. Larizek zortzigarren postuan amaitu zuen proba, 37:03 denborarekin, eta Maite Maiora hirugarren izan zen nesketan, 44:02 denborarekin. Guztira 138 lagunek amaitu zuten 3,9 kilometroko proba, eta horien artean 11 neskak izan ziren. Aurtengo edizioan maila handiko lasterkariek hartu dute parte, eta, lehen postuetan batez ere, kirolari handiak izan dira. Mutiletan Walter Becerra (35:02) izan zen irabazlea, eta, nesketan, Ana Conde (40:44).



Mekatar xake taldea seigarren, Leioako xake txapelketan



Hamalau taldek hartu zuten parte joan zen asteburuan Leioako xake txapelketan, eta 14 urte azpikoetan seigarren postuan sailkatu zen Elgoibarko xake taldea. 13,5 puntu lortu zituzten, lau partida irabazi eta bi galdua. Seniorrak, berriz, bederatzigarren postuan amaitu zuten, hiru talderi irabazi eta zortziren aurka galdu ostean. Biharko, bestalde, Herriarteko xake txapelketa antolatu dute. Lerun jatetxean, jokatu dute, 16:00etatik aurrera.

Ion Egañak irabazi du Larrabeako golf txapelketa gaztetxoan mailan



Ion Egaña gazteak Larrabeako (Araba) klubak antolatutako golf txapelketa irabazi zuen joan zen domekan, gaztetxoan mailan. 18 zuloko kategorian hartu zuen parte hamahiru urteko mutikoak, eta bera izan zen hamazazpi partaideen artean onena, 79 punturekin. Ion Egaña orain dela pare bat urte hasi zen golfean jokatzeko, eta dagoeneko, buru-belarri dabil txapelketetan parte hartzen. Lehenengo garaipen garrantzitsua lortu zuen joan zen asteburuan.

Gaur arratsaldean jokatuko dute Nahaste Borraste

19:00etan hasiko da proba Plaza Handian

Gaure arratsaldean jokatuko dute Nahaste Borraste herri proba, 19:00etatik aurrera. Plaza Handian hasiko da lasterketa, eta parte hartzaileek hiru proba egin beharko dituzte. Lehenengo, bizikleta lasterketa egingo dute; ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta egin beharko dute korrika, eta azken proba zakurik gabe saltaka egitea izango da. 16 urtetik gorako edo-nork hartu dezake parte. Izena emateko Kimetz elkartera jo daiteke, baina lasterketa hasi aurretik izena emateko aukera ere egongo da.



Sanloren denboraldi amaierako festa, bihar

Sanlo eskubaloitako taldeak denboraldi amaierako festa egingo du bihar. Horretarako, entrenatzaile, jokalarik, gurasok, babesle eta Udaleko, Kirol Patronatuko, Euskadiko eta Gipuzkoako eskubaloitako federazioetako kideek afaria egingo dute Iksatolako frontoian, 21:00al aldera. Ondoren, talde bakoitzeko jokalarik aipagarrienak sarituko dituzte, eta azkenik, dantzaldia egingo dute jaiari amaiera emateko.

Agirrebeña mendaroarrak irabazi du lau t'erdiko pilota txapelketa



10 Bai taldeak antolatutako lau t'erdiko pilota txapelketak badu irabazlea. Joan zen barixakuan jokatu zuten final nagusia Plaza Handian, eta Agirrebeña mendaroarrak 22-16 irabazi zion Lazarobaster elgoibartarrari. Aste honetan, bestalde, 10 Bai taldeak antolatutako nesken arteko pala txapelketa hasi da. Hamar bikotek eman dute izena, eta lehenengo faserako bost bikoteko bi talde egin dituzte. Euren arteko ligaxka jokatu beharko dute lehenik, eta talde bakoitzeko bi bikote sailkatuko dira final erdiatarako. Final nagusia uztaillaren 15ean jokatuko dute, Plaza handian.

BTT irteera dela-eta, ezingo da erabili Mintxetako aparkalekua

Datorren domekan egingo dute Debabarena BTT martxa, eta, ondorioz, Mintxetako aparkalekuak ezingo dira erabili. Udalkirol Patronatuak Mintxetara oinez joateko eskaera egin du.

BTT martxa 9:00etan hasiko da, eta 13:00ak aldean itzuliko dira partaideak aparkalekura. Lasterketaren ostean, aparkalekuan jarri den karpan bazkaria egingo dute. Bazkariaren prezioa 10 eurokoa izango da eta aurrez izena eman behar da www.debabarrenaturismo.com helbidean. Partaideek, bestalde, igerilekura sartzeko hiruna sarrera jasoko dituzte.

Debegesak, Elgoibarko Udalkirol Patronatuak, Bikeibar, Amerikutz eta Mintxeta Atletismo Taldeak antolatu dute domekako irteera, eta partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeran: bata 45 kilometrokoa eta bestea 25 kilometrokoa, baina biak ere zailtasun handikoak direla aurreratu dute antolatzaileek.

Bizkaiko kostaldera irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak irteera lasaia eta erraza antolatu du uztaillaren 2rako. Algortako Aixerrrotatik irten eta Bizkaiko kostaldean zehar egingo dute ibilaldia. Bidegorri bat jarraituz, Sopelako hondartzara iritsiko dira, eta ondoren, Barrikako hondartza inguratuz, Plentziara iritsiko dira. Nahi duenak hondartzan bainua hartzeko aukera izango du, eta oraindik indarra duenak Billano lurmuturra igo dezake. Antolatzaileek esandakoaren arabera ibilbide laua eta erraza da. Goizeko 8:00etan irtengo dira Plaza Handitik. Morkaikoko bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 10 euro. 26 urtetik beherakoentzako prezioa 5 eurokoa izango da. Izenematea zabalik dago. Informazio gehiago eskuratzeko Morkaikora deitu daiteke (943 740 297), edo email bat idatzi daiteke morkaiko@morkaiko.net helbidera.

MIREN GUILLO eta MIREIA DELGADO

Hilekoari buruzko tailerreko irakasleak

Berdintasun Sailak antolatuta, hilekoari buruzko tailerra emango dute Miren Guillok eta Mireia Delgadok. Nomantxakolorea kolektiboaren parte dira, eta dagoeneko badira urte batzuk hilekoari bueltak ematen hasi zirela, arte feministaren bidez, diskurtso eta praktiken inguruan hausnartzen. Uztailaren 4an eta 5ean eskainiko dituzte saioak Elgoibarren, eta interesatuek hilaren 1era arteko epea dute izena emateko. Tailerrak 5 euro balio ditu.



Miren Guillot elgoibartarra ezkerrean eta Mireia Delgado.

“Hilekoari buruzko hausnarketa kolektiboa egitea da helburua”

Hilekoari buruzko tailerra emango duzue. Zer irakatsiko duzue?

Irakatsi baino, hausnarketa kolektibo bat egitea da helburua; denon artean pentsatuz, hitz eginez, zein isilik, entzuten, norbera gusturago dagoen moduan. Hilekoaren gaia nola bizi dugun, nolako proiektio soziala duen, horrek nola eragiten digun, bizipen horiek zer esaten diguten jendarteari buruz... badago zer pentsatu.

Nolakoa izango da tailerra?

Teoria eta praktika banezinak direla uste dugu. Praktikari buruz pentsatuko dugu: zer? nola? zergatik? Odolaren kudeaketarako alternatibak proposatuko ditugu tailerrean bertan egiteko, hilekoaren esanahiei erresistentzia egiten dieten bestelako diskurtso edo praktika batzuetan pentsatu... Horrek guztiak teorizazioa dauka barnean.

Odola kudeatzeko metodo berriak agertu dira azkenaldian. Azalduko diguzue silikonazko konoaren metodoa?

Egia esan, mugari bat izan daiteke konoarena. Arrakastatsua izan da testuinguru desberdinetan, eta hori bitxia da. Aldaketa praktikoko horrek hausnarketa bat eragin du nahitaez. Hori oso interesgarria da. Hala ere, ez da alternatiba bakarra: zuritu gabeko konpresak, telazko konpresak, esponjak, kuleroak... norberaren beharren arabera baliabideak ere badaude.

Konoaren metodoa ekologikoagoa da, baina praktikoa al da?

Ohitura kontua izan daiteke; komun bat besterik ez da behar. Baginatik atera, hustu, ur txorrotatik pasa eta sartu. Ekonomikoki, ekologikoki, osasunari begira, eta, batez ere, politikoki, kudeaketarako dispositibo komertzialak baino praktikagoa izan daiteke.

Zer jakin behar dugu hilekoari buruz?

Jakin behar baino, akaso interesanteena birpentsatu daitekeen zerbait dela da. Pentsatzen hasiz gero, korapilo pila bat dituen errealtatea dela ikusiko genuke, eta esanahi desberdinak aztertzen uler daiteke hau. Hilekoa aitzakia izan daiteke korapilo horretan agertzen diren kontu askori buruz pentsatzeko: gorputzen medikalizazioa, gorputzen kontrola eta autoerregulazioa, “emakume gorputzak” zer esan nahi duen testuinguru sozial-historiko honetan, sexualitatea, osasuna...

Joan zen astean hilekoarekin nengoela amonak igerilekura ez joateko esan zidan. Horrelako zenbait mito badaude, ezta?

Mitoak gure praktika guztietan, arloa beste edozein izanda ere, presente daude. Izan ere, ez da amonen kontua izaten soilik horrelako mitoena, denok ditugu hor nonbait, mito zaharrak eta baita sortzen diren mito berriak ere. Hilekoaren kasuan, bizipenetan, ohituretan, “zer den garbia” edo zer den “zikina” bezalako esanahietan... eragiten dute.

Hilekoarekin izaten diren tripako minaren kontrako erremedioirik?

Mina sabelean, bizkarrean, buruan... beste edozerk sorturikoa denean bezala, asko eta desberdinak dira erremedioak. Deskantsua, sendaberrak, masajeak, ibuprofeno bat, sexu praktikak, arnasketak... momentuan momentuko beharrek momentuko erantzunak behar dituzte. Garrantzitsuena ezagutza izan daiteke, gero norberak bere gorputzaren gestio hori nola daraman, bere egunerokotasunaren, bizitzako momentuaren edota aukeren arabera izango da.

Mikel Olaizolak hirugarren egin zuen Plazatik Gazttxera bertso saioan

Bihar jokatu da Mendaroko kanporaketa



Joan zen barixakuan jokatu zen Plazatik Gazttxera bertso txapelketako kanporaketa Elgoibarren, eta Mikel Olaizolak hirugarren egin zuen. Epaimahaiko kideen ustez Beñat Iguaran izan zen onena, eta ikusleek Mikel Olaizola aukeratu zuten. Buruz buruko saioa jokatu zuten bi bertsolariak, eta Beñat Iguaranek jaso zuen irabazlearen makila. Bigarren sailkatua Asier Aspiroz izan zen.

Bihar Mendaroko kanporaketa

Bihar, ekainak 25, Mendaroko kanporaketa jokatu dute, Mendaroko gazttxeran. Aitzol Urain mendarorarekin batera ondorengo bertsolariak hartuko dute parte: Mikel Artola, Asier Aspiroz, Maddi Gallastegi, Ander Zulaika eta Hodei Iruretagoiena. Gai jarzaille lanak Maialen Olazabal mendarorak egingo ditu.

Atzo hasi ziren Altzolako San Juan jaiak, eta domekan amaituko dira



Artxiboko irudia

San Juan arbola jartzearekin hasi ziren atzo San Juan jaiak Altzolan, baina dudarik gabe, ekitaldien artean ikusgarriena Deba ibaian egin zuten sua izan zen. 23:00etan piztu suten sua, eta Altzolako auzokideez gain, jende asko gerturatu zen urteko gaurik magikoenaz gozatzera. Gaur goizean, bestalde, atarietan adarrak jarri dituzte, San Juan Eguneko ohiturari jarraituz. Arratsaldean Kiribil joango da Altzolara, eta iluntzean dantzaldia egongo da. Astebururako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte: besteak beste, herri kirolak, dantzaldiak eta umeentzako jolasak. Egitarau guztia agendan daukazue.

Idotorbe-San Pedroko jaiak ekainaren 28an hasiko dira

Datorren martitzenean, ekainaren 28an, hasiko dira Idotorbe-San Pedro auzoko jaiak, eta uztailaren 3an amaituko dira. Hilaren 29an ospatuko dute San Pedro eguna, eta aurtengo berrikuntza nagusia uztailaren 2an egingo dute Quad Cross lasterketa izango da. Horrez gain, herri kirolak, dantzaldiak, umeentzako jolasak eta bertsolariak izango dira, besteak beste. Egitarau guztia agendan ikus dezakezue.

Ikastolako ikasleak saritu dituzte ONCEren lehiaketan

Ikastolako LH4B gelako *Egiptorak* taldea (Julen Almenara, Nerea Iraola, Nora Viña eta Ane San Martin) saritu dute ONCE erakundeak urtero egiten duen lehiaketan. Lehiaketaren helburua mugak gainditzea da, eta ikasleek hormirudi bat egin behar zuten, guztiontzako oporrak irudikatuz. Hau da, ezinduentzako aukera berdintasuna eskaintzen duten oporrak. Atal horretan Gipuzkoa osoko 107 lan aurkeztu zituzten, eta guztira, 397 ikasleak hartu zuten parte.



Emilia Nogalesen margo erakusketa, Bergaran

Emilia Nogales artista elgoibartarrak erakusketa jarriko du Bergarako Arostegi aretoan, gaurtik hasita, uztailaren 17ra arte. Elgoibartarrak bere azken koadroak eta lanak erakutsiko ditu erakusketa horretan.

LANA

ESKAERA

- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut.
☎ **669 322 250**
- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest. Ekainaren bukaera eta uztailean. ☎ **659 024 427**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduz lan egingo luke. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduz lan egingo luke. Interna edo orduka.
☎ **699 813 826**
- Neska lanerako prest.
☎ **681 222 807**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egiteko, ume nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest.
☎ **648 603 029**
- Mutila lan bila, pintore edo zerbitzari lanak egiteko.
☎ **656 781 743**
- Emakumea lan bila dabil. Pertsona nagusiak zaintzeko esperientzi handia daukat.
☎ **633 150 376**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua.
☎ **681 154 706**
- Neska lanerako prest. Nagusiak zainduko litzuzke, externa edo interna moduan.
☎ **688 682 398**
- Neska gaztea lanerako prest, pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, externa edo interna.
☎ **646 821 678**

- Txoferra eskaintzen da, B1 gida baimenarekin.
☎ **650 538 274**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka.
☎ **689 658 471**
- Emakumeak garbiketa lanak egin, edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **646 506 777**

ESKAITZA

- Zerbitzari euskalduna behar da jatetxerako.
☎ **943 121 262**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Gazteentzako lokala alokagai, araudi berria betetzen du. 125 m2 ditu gutxi gorabehera.
☎ **941 34 14 37 / 676 882 373 (Esther)**
- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa), abuztuan. Prezio onean.
☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin.
☎ **676 404 365 / 669 621 164**
- Etxebizitza alokatzen dut Deban, uda denboraldirako. ☎ **680 560 981**
- Gizonezkoak logela hartuko luke alokairuan.
☎ **648 787 786**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, ate automatikoarekin. ☎ **663 409 726**

AUTOAK

- Mercedes Vito furgoneta salgai, wesfalia eta abantze berriarekin. 16.000 euro.
☎ **665 708 756**

BESTELAKOAK


- Taberna traspasatzen da San Frantzisko kalean.
☎ **687 051 789**
- Bigarren eskuko *kuatrozikloa* (gida baimenik gabe gidatzeko autoa) erosiko nuke.
☎ **699 706 798 (Nerea)**

ZOZKETA

- Ikastolaren eguneko zozketako hirugarren sariduna ez da agertu oraindik. Zenabakia: 0554 (erreserbakoa, 1481).

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta) Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

OKINDEGIA	26 domeka IBARRENEA
FARMAZIAK (24 orduz)	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
24 Ibañez	
25 Etxeberria (Santa Ana)	
26 Etxeberria (Santa Ana)	
27 Ibañez	
28 Garitaonandia-Bidasolo	
29 Etxeberria (Santa Ana)	
30 Fernandez	
1 Yudego	
	Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
	Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Ekainaren 27an,
UR JOLASAK
ludotekan!
16:00etatik 19:00etara

Ekainaren 25ean,
Futbol 7 txapelketa
Mintxetan,
eta, ekainaren 26an,
barbakoa
San Lorentzon

	CORDON VILARCHAO
San Roke, 7 behe Pl. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak Tel. 943 743 670	DEKORAZIOA Kango eta bameko estaldura Zoluk ezartzea Lantuturik egut, alurino, PVC. Pintura orokorra

B
BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea





• Zorionak gure futbolari handiari! Ondo pasa zure urtebetetzean, familiako ondoan. Anai-arreba Elene eta Oihanen partez.



• Zorionak, **Gorka**, txapeldun! Egun polita pasa! Gurasoen eta lkerren partez, muxu potolo bat.



• Zorionak, **Efiaut**, astelehenean 11 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Haritzen partez.



• Zorionak, **Oier**, ekainaren 22an urte bat egin duzulako. Aita, ama eta Enararen partez. Muxu handi bat, potxolo.



• Zorionak, **etxeko txikiari**, bihar urtetxo bat egingo duelako. Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Estixu eta Dogartziren partez.



• Zorionak, **Gorane**, igandean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, lkerren partez.



• Zorionak, **Liz Amaia**, gaur urtebete egin duzulako. Gurasoen eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Maria**, zure bigarren urtebetetzean. Bihotzez, denon partez, eta, bereziki Intza eta Luciaren partez. Paaaaa, maitial!



• Zorionak, **Nora!** Asteartean 4 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat familiakoan eta bereziki, Maren eta Jonen partez.



• Zorionak, **Danel**, asteartean urte bat beteko duzulako! Muxu handi bat familiakoan, eta, Daddy, Amets eta Anarren partez!



• Zorionak, **etxeko txikiari**, igandean 3 urte egingo dituelako. Familiakoan partez, mila patxo.



• Zorionak, **Maidier**, atzo 4 urte egin zenuelako! Patxo asko, etxekoan partez.



• Zorionak, **bikotel** Zuen eguna ondo pasa duzuelakoan, muxu pila bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Gaizka**, astelehenean 9 urte handi beteko dituzulako. Etxekoan, eta, bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Malen eta Aimar!** Ondo pasa zuen hirugarren urtebetetze eguna. Muxu handi bat aitaren eta amatxoren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €.
Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
 BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen,
edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



1956an jaiotakoek kinto bazkaria egin genuen ekainaren 11n, eta oso ondo pasatu genuen. Eskerrik asko etorri zineten guztioi.

24 barixakua

Ikasturte amaiera

19:00 Elgoibar BH Institutuko diploma banaketa

Herriko Antzokian.

Kirola

19:00 Nahaste Borraste

Kimetz elkarteak antolatuta, Plaza Handian.

25 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Baserrietako produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da, eta abere erakusketa ere egingo dute. Nafarroa Plazan eta Plaza Txikian.

9:00 Kale kantariak

Nafarroa Plazatik irtengo dira.

Kirola

16:00 Herriarteko xake

txapelketa

Elgoibar Xake Taldeak antolatuta, Lerun jatetxean.

26 domeka

Kirola

9:00 Mendi bizikleta martxa

Debabarrena BTT martxa egingo dute. Irteera, Mintxetan.

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *El bateo, preludioa* (F. Chueca).

2. *Virginia* (J. de Haan)

3. *Pequeña Czarda*, (P. Iturralde).

Saxofoi bakarlaria, Aitor Nova.

4. *El bodeguero, txa-txa-txa*

(Egues-Tormo).

5. *Car* (M. Peeters)

27 astelehena

Dolitalia

12:00 Kontzentrazioa

Egun osoko ekitaldia, Plaza Handian.

19:00 Manifestazioa

Arnaldo Otegi babesa emateko. Plaza Handitik hasita.

28 martitzena

Kale antzerkia

20:00 'Pronostiko erreserbatua'

Oihulari Klown taldeak aurkeztuko du, Plaza Handian.

30 eguena

Kirola

19:00 Bilera

CD Elgoibarren batzarra, Kultur Etxean

Otoitzaldia

19:30 Asis sarea

Santa Klarako elizan.

SAN JUAN JAIK ALTZOLAN

24 BARIKAKUA

San Juan eguna

7:00 Atarrietan adarrak jartzea

12:00 Meza santua

13:00 Herri kirolak

17:30 Kiribilka

19:00 Parrillada eta dantzaldia

25 ZAPATUA

San Juan txiki

11:00 Haurrentzako jolasak

13:00 Zinta lasterketa

15:00 Herri bazkaria

18:30 Zezentxoak eta poniak

20:00 Dantzaldia

23:00 Dantzaldia

26 DOMEKA

12:00 Meza santua

12:30 Herri jolasak

13:00 Herri kalejira

17:00 Mus txapelketa

18:00 Zezentxoak eta poniak

19:00 Txokolatada eta azken traka



IDOTORBE-SAN PEDROKO JAIK

28 MARTITZENA

San Pedro bezpera

19:00 Kanpai jotzea eta txapliguak

21:00 Auzotarren afaria

29 EGUAZTENA

San Pedro Eguna

11:00 Meza nagusia

Ondoren, luntxa

12:30 Pilota partida

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria

Egun osoan zehar, Olarte eta Elustondo triktilariak

1 BARIKAKUA

21:00 Lagunarteko afaria

Izena emateko: 652 159 275

23:00 Mus txapelketa

2 ZAPATUA

12:00 Quad Cross txapelketaren egiaztapenak

15:00 Quad Cross txapelketa

Egun guztian zehar, motoen erakusketa

20:30 Trikitilari eta bertsolariak

Arkaitz Estiballes eta Julio Soto.

23:00 Gaupasa

Ion Ansorregi eta Larrañagarekin.

00:00 Bolo txapelketa

3 DOMEKA

10:30 Meza

Ondoren, txalaparta

Ttakun bikotearekin.

12:00 Euskal dantzak

Eztei taldearekin.

17:30 Idi demak

Egoitz Armaolea (Zumarraga)

Isidro erretegia (Azkoitia)

Goirigolzarri (Laudio)

Ondoren, motoaren zozketa

18:30 umeentzako jolasak

Egun osoan zehar, Baltzola anaiak triktilariak



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabillioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



ARNALDO ASKATU

POLITIKA ASKATU

Egun osoko kontzentrazioa eta manifestazioa ekainaren 27, astelehena, Plaza Handian, 19:00etan.

Parte hartu: kolektiboetan, herritar moduan eta manifestazioan.

- 
- 12:00 Udala
 - 12:30 Alderdi politikoak
 - 13:00 Sindikatuak
 - 14:00 Udaleko langileak
 - 15:00 Elgoibarko Gazte Asanblada
 - 15:30 Irakaskuntza
 - 16:00 Ostalaritza
 - 17:00 Kultura
 - 17:30 Kirola
 - 18:00 Herritarrak eta *Arnaldo Askatu*
Politika Askatu herri ekimena
 - 19:00 Manifestazioa

8719600510

